

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GALDAKAOKO UDALAREN 2008-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Galdakaoko Udalaren 2008ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazio-ko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Honela, bada, aurrekontuaren alorrean, txostenak azpimarratu du Alkateak onetsi dituela kreditu osoaren gaineko aurrekontu aldaketa bat eta kreditua gaitzeko espediente bat; horren onespena, ordea, Udalbatzari zegokion. Berebat, Udalbatzari ez zaio jakinarazi Alkateak guztira 13.367 mila euroko aurrekontu aldaketak onetsi dituenik.

Langileriari dagokionez, HKEEk jakinarazi du Udalak ez duela Bizkaiko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman 2008-2010 aldirako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan baldintzen akordio erregulatzaileria eta hitzarmen kolektiboa. Berebat, bi Erakunde Autonomoek ere ez dituzte Udalaren zerbitzura diharduten lan kontratupeko langileen lan baldintzen hitzarmen kolektibora atxikitzeko erabakiak ere argitaratu.

Musika Jardueretarako Udal Zentroko aldi baterako lan-kontratuko 25 langileren kontratazioan erabilitako hautaketa prozedurek ez dute Funtzio Publikorako sarbidean buru egiten duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatzen.

Atal honetan bertan, HKEEk dio Udalak hainbatetan urratu dituela Sektore Publikoaren Kontratuen Legea eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratua; hona hemen adierazgarrienak: Gastuak egiterakoan bidegabe kontratuaren xedea

zaticatzea; obra kontratu batean, behin-betiko esleipena obrak gauzatu ondoren onetsi da; etxez etxeko laguntza emateko zerbitzua kudeatzeko zerbitzu kontratu batean, kontratua aldatu da eta hasiera batean kontratatutako ordu kopurua % 159,06 gehitu da; honek lehia printzipioak urratzen ditu, izan ere, kontratuak aldarazteko gaitasuna zuhurtziazko mugen baitan gauzatu behar dela aintzat hartuta; kontratu txikien kontzeptuan eta obra, hornidura, zerbitzu eta abarrei dagozkiela guztira 1.320 mila euroko gastuak egin dira; ordea, horiek guztiak ez ditu horretarako gaitasuna duen udal atalak baimendu.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 5.521 mila euroan murriztu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, zerga-obligazio, zerga, langileria, kontratazio, diru-laguntza, sarrerren hondakin eta hirigintzaren arloetan.

Amaitzeko Udalaren egoera finantzarioari dagokionez esan behar da, sortutako aurrezki garbiak eta Udal Kontuetatik eskuratutako diruzaintza geldikinak pentsarazten dutela ez dela arazorik izango 2006-2008ko inbertsio zifrei bere horretan eusteko datozen ekitaldietan; ordea, azpimarratu da HKEEk proposatu dituen doiketek nabarmen urrituko dutela diruzaintza geldikina, inbertsioak besterentzetik eratorritako diru-sarrerak askoz ere txikiagoak izan direla fiskalizatutako ekitaldiaz geroko ekitaldietan eta sarrera arruntak murriztea aurreikusten dela; honegatik guztiagatik, datozen ekitaldietan exekutatu diren inbertsioak nekez finantzatu ahal izango dira azken ekitaldietan bezala sortutako baliabideen bidez.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas